

Udalbatza biltzeko deia

Alkatearen aginduz, Udalbatza Osoak egingo duen **ohiko** batzarrera dei egiten dizut.

Eguna: **2018ko azaroaren 26an**

Ordua: **arratsaldeko 7:30etan**

Lekua: **Udaletxeko Pleno Aretoa**

Gai-zerrenda:

1. 2018ko urriaren 29an egindako bilkuraren aktaren onarpena.
2. Alkatearen jakinarazpenak.
3. Bergarako gizon eta emakumeen berdintasunerako II. planaren onarpena.
4. 2017 urteko likidazioak aurrekontu egonkortasunaren helburua edota gastuaren araua betetzen ez duenaren komunikazioa.
5. 2018/14 kreditu aldaketaren onarpena.
6. Tokiko Gobernu Batzarraren inguruan, 2018ko azaroaren 20an emandako Dekretuaren berri ematea.
7. Koroaren aurkako irainaren delitua indargabetzeko eta balio errepublikanoen eta demokraziaren aldeko konpromezua berresteko mozioa, Irabazik aurkeztua.
8. Apustu etxeak eta zorizko jokuetarako aretoak, hezkuntza zentroetatik, kultur gune eta haurrentzako eremuetatik gertu kokatzea mugatzen duen mozioa, Irabazik aurkeztua.
9. Eukalipto espezie inbaditzailea izendatzeko eskaeraren inguruko mozioa, Irabazik aurkeztua.
10. Azaroaren 25erako adierazpen instituzionalaren onarpena.
11. Eskaera eta galderak.

Begara, 2018ko azaroaren 22a

Idazkariak

